# PROBLEMAK LH 5

1. Tren batean 887 lagun doaz. Geltoki batean 123 lagun igo eta 87 jaitsi dira. Zenbat lagun doaz trenean geltoki horretatik pasatu eta gero?

   _______ ___ _______ = __________

   _______ ___ _______ = __________

   _______ lagun doaz trenean .

2. Lur sail batean 5.345 zuhaitz landatu dituzte. Zuhaitz horietatik 3.412 haritzak dira, eta gainerakoak, berriz, pinuak. Zenbat pinu gutxiago landatu dituzte haritz baino?

   _________ ___ _________ = ___________

   _________ ___ _________ = ___________

   ________ pinu gutxiago landatu dituzte.

3. Musika talde batek 11.345 disko saldu ditu aste honetan, aurreko astean baino 1.439 gutxiago. Zenbat disko saldu ditu guztira bi asteetan?

   ____________ ___ ____________ = ______________

   ____________ ___ ____________ = ______________

   ____________ disko saldu dituzte guztira.

4. Elenek 92€ ditu aurreratuta, eta Koldok, berriz, 14€ gehiago. Bien dirua bildu dute, amari disko bilduma bat oparitzeko. Bildumak 180€ balio du. Zenbat diru geratuko zaie gastatu gabe?

   ________ __ _______ = _________

   ________ __ _______ = _________

   ________ __ _______ = _________

   _______€ geratuko zaie gastatu gabe.

5. Herrialde batean atzerriko 2.345.875 turista izan dira urtebetean, aurreko urtean baino 345.780 gehiago. Atzerriko zenbat turista izan dira herrialde horretan bi urteotan?

   ________________ __ _______________ = ________________

   _________________ __ ______________ = _________________

   _______________ turista izan dira.

6. Iñigok "Munduko Herrialdeak" bildumako 314 kromo ditu, eta Loreak, berriz, 135 kromo. Iñigok 76 kromo eman dizkio Loreari. Iñigok baino zenbat kromo gutxiago ditu orain Loreak?

   _______ __ _______ = ___________

   _______ __ _______ = ___________

   _______ __ _______ = ___________

   ___________ kromo gutxiago ditu orain Loreak.